



0. Zertarako?

1. Nori?

2. Zer?

3. Nola?

4. Kasuak

Herritarren parte-hartzean berrikuntzak transferitzeko prozesuetarako gomendio orokorrak

Dokumentu hau Euskadiko Gobernu Irekirako 2018-2020 Ekintza Planaren 3. Konpromisotik bultzatu da, eta bere helburua ilab-aren kontzeptualizazioa da, Euskadiko herritarren parte-hartzea sustatuko duen berrikuntza-laborategia.

ilab-aren esku-hartze eremuak lau dira: prospekzioa, esperimentazioa, gidaritza eta ezagutzaren eta esperientzien transferentzia. Azken eremu hori, transferentziarena, izango da, hain zuzen ere, orrialde hauen ardatza.



Open
Government
Partnership
Euskadi



OGPEuskadi
konpromiso#3
herritarren
parte-hartzearen i-lab



0. Zertarako?

Zer bilatzen du transferentziak?


- Berrikuntza gidatu eta erraztea.
- Lankidetza sistematizatzea.
- Eskalatzea edo erreplikagarritasuna sustatzea beste testuinguru batzuetan.

Zer esan nahi du transferitzeak?

- Prozesua hasieratik kode irekian diseinatzea. Bidean zehar beste eragile batzuekin funtsezko elementuak partekatzeko ikuspegia hasieratik txertatzea. Erreferentzia gisa, OGP Euskadi estrategiaren 3. konpromisoaren esparruan garatutako 4 proiektu pilotuen kasua kontsulta daiteke. **info+**
- Prozesua ebaluatzea, martxan edo amaituta dagoenean, ikaskuntzak partekatzeko (ondo egindakoak, akatsak, ziurgabetasunak). Erreferentzia gisa, Elkarlan Sarien kasua kontsulta daiteke. **info+**

Zer onura lortzen dira transferitzean?

- Berritzen laguntzen da, komunitatean ezagutza partekatuz.
- Gehiago ikasten da proiektuari berari buruz, bere potentzial berritzailea ebaluatzean.
- Lorpenak, ematen den balio diferentziala edota balio publikoaren garatzea hobeto kontatzeko gaitasunak garatzen dira.





1. Nori?

Proiektu berean, transferigarritasun-potentziala duten hainbat eduki daude; haien balio-ekarpena hura jasoko duen eragilearen arabera izango da: batzuentzat, prozesuari lotutako hainbat gairen ingurukoa izango da interesa; beste batzuentzat, berriz, emaitzei lotutako alderdiak izango dira arreta-gunea.

Era berean, hartzaile guztiek ez dute hizkuntza bera hitz egiten, eta ez dituzte kanal berberak erabiltzen. Horregatik, hartzaileei egokitutako transferentzia-prozesu bat diseinatzea funtsezkoa da eragin positiboa lortzeko.

1.1 - 1. Urratsa: ezagutza nori transferitu nahi zaion zehaztea

Transferentzia teknikoa

Transferitu beharreko edukiek kontzeptualizazioan, estrategian edo gauzatzeko teknikoan balio - ekarpena eragiten dutenean gertatzen da. Beraz, barruan edota kanpoan partekatu beharreko ezagutza espezializatua da.

Eragile hartzaile posibleak:

- **Barne-maila**
 - Lantaldea
- **Kanpoko maila**
 - Agente homologoak
 - Pertsona espezializatuak
 - Agente laguntzaileak/komunitatea
 - Komunikabide espezializatuak

Dibulgaziorako transferentzia

Transferitu beharreko edukiek proiektu edota gai zehatzei buruzko ezagutza, kontzientzia edota interes orokorra sortzen dutenean gertatzen da. Beraz, dibulgazioaren ikuspegitik proposatutako ezagutza da, eta proiektuarekin lotutako eragileekin nahiz proiektuarekin zerikusirik ez duten beste batzuekin partekatu daiteke.

Agente hartzaile posibleak:

- **Barne-maila**
 - Finantzatzaileak
 - Arduradun politikoak
 - Erabiltzaileak/hartzaileak
- **Kanpoko maila**
 - Herritarrak
 - Ingurune geografikoa
 - Balitzko finantzatzaileak
 - Komunikabide orokorrak




1. Nori?

1.1 - 2. Urratsa: hartzailean sakontzea

Transferentziaren hartzaileak pertsona fisikoak izan daitezke, baina baita izaera desberdineko kolektiboak ere (lantaldeak, erakunde formalak, egitura iragankorrak, etab.); dela taldearen ikuspegitik, dela norbanakotik, zenbait gairi buruzko gogoeta egiteak informazio erabilgarria lortzea ahalbidetuko du, ondoren, transferentzia-prozesu eraginkorra diseinatzeko.

Pertsona/eragile hartzaileei buruz egin daitezkeen galderak:

- Nolakoa da bere ingurua (maila sozial, kultural, emozional eta abarretan)?
- Zer eragile/pertsona motarekin bizi da?
- Zerk eragiten dio?
- Zer jarrera du?
- Nolako komunikazioak jasotzen ditu? Zein kanaletatik?
- Zer arazo ditu?
- Zein behar ditu?
- Zein interes ditu?
- Zein irizpide erabiltzen ditu gogobetetzea ebaluatzeko?





2. Zer?

Emaizta onak eman dituen esperimendu, proiektu edo zerbitzu baten esparruan, transferitzeko potentziala duten hainbat eduki daude, baina, horien guztien artean, zein da hartzaile jakinari balio gehien emango dion edukia?

Interesgarriena...

- ... prozesua bada, transferentziak honako gai hauek izango ditu ardatz:
 - Giza baliabideen, baliabide teknikoan eta aurrekontu-baliabideen kudeaketa.
 - Sustatu diren balioak.
 - Proiektua kudeatzeko barne-dinamikak eta lidergo-estiloa.
 - Ezarritako ekintzen eta metodologien tipologia.
- ... emaizta bada, transferentziak honako gai hauek izango ditu ardatz:
 - Emaizta partzialak.
 - Azken emaitzak.
 - Berehalako emaitzak.
 - Epe ertaineko/luzeko emaitzak.
 - Sortutako gizarte-inpaktuak.

Kontuan hartzekoak

Ikastea eta ikaskuntzak partekatzea da transferentzia-ariketaren oinarria, eta, hortaz, honako galdera hauei erantzun ahal izango zaie:

- Zer akats identifikatu dira?
- Zer oztopo aurkitu dira?
- Zer doikuntza egin dira?
- Zein aurkikuntza egin dira?
- Zertan asmatu da?

Osagai horiek errazago identifikatu ahal izateko ekintzak eta erabakiak:

- Hasieran
 - Helburu errealistak, espezifikoak eta neurgarriak ezartzea.
 - Transferitu nahi denari buruzko hipotesi bat sortzea.
 - Proiektuaren jarraipena egiten lagunduko duten adierazleak definitzea.
- Bitartean
 - Zorrotz jokatzeko ebaluazio iraunkor eta kontrastatua egiteko.
- Beti
 - Gardentasuna.
 - Eskuzabaltasuna.
 - Erabilgarriak izan zaizkigun aurkikuntzak eta elementuak badaude, horiek barneko edo kanpoko beste esparru batzuetara transferitzeko aukera proposatzea, nahiz eta hasierako helburuetan ez egon.





3. Nola?

Transferentziaren *nor-nori-a* zehaztu ondoren, *nola* lantzeko unea iristen da, hau da, zer kanal erabiliko diren eta horien bidez zer produktu transferituko den erabakitzeko momentua.

3.3.

3.1. - Aurretiazko gaiak

Hala ere, transferentzia-prozesuaren diseinuari ekin aurretik, galdera hauei erantzun behar zaie:

- Zein da transferentzia-prozesuaren hasieratik (diseinua), hura gauzatzetik (hedapena) eta amaitu arte (ebaluazioa) dagoen denbora-tartea?
- Zein da erabilgarri dagoen aurrekontua eta prozesuaren zein fasetara bideratu nahi da lehentasunez?
- Zer baliabide tekniko eta giza baliabide daude? Kanpoko hornitzaileen laguntza behar da?
- Zein konplizek lagun gaitzake prozesu honetan?
- Zein dira transferentzia-prozesuaren helburu kualitatiboak eta kuantitatiboak, eta zer adierazleren bidez ebaluatuko dira?
- Beste zein transferentzia-prozesu dira erreferente edota inspirazio?

3.2. - Kanalak

Transferentzia komunikazio-kanalen bidez egingo da. Komunikazio-kanal horiek kontzienteki hautatu behar dira, eta beti koherentziaz, bai esperimenduaren ardura duen eragileak erabilitako baliabideekin, bai eragile hartzaileak dauzkan baliabideekin ere.

Zein kanalen bidez transferitu daiteke?

Kanal digitalak

- Webgunea
- Bloga
- Sare sozialak
- Posta elektronikoa
- E-mail marketina
- Aplikazio mugikorra
- Online foroa
- E-learning plataforma
- Komunikabide digitala

Aurrez aurreko kanalak

- Lan bilera
- Foro profesionala (aurkezpena, kongresua, topaketa, azoka, jardunaldia, etab.)
- Prestakuntza-zentroa
- Hurbileko ekipamendua
- Espazio publikoa
- Herritarrentzako arreta-zerbitzua
- Publikoari irekitako negozioa (merkataritza, ostalaritza, etab.)
- Komunikabide inprimatuak

Ziur gehiago bururaten zaizkizula!



3. Nola?

3.3. - Produktua

ERABAKI

Kanala aukeratzeak transferentzia-produktuaren forma nolakoa izango den baldintzatzen du, baina ez bakarrik; gai hauei buruzko erabakiak harteak produktua produktua sortzeko eta diseinatzeko oinarri sendoak ezartzea ahalbidetuko du:

- Zein izango da bere formatua?
Iatzizkoa, grafikoa, bisuala, ikus-entzunezkoa, soinuzkoa...
- Zer luzera izango du?
Laburra, ertaina, luzea, sakona...
- Nolakoa izango da haren egiletza?
Inpertsionala, pertsonala, kolektiboa, indibiduala...
- Zein tonu izango du?
Teknikoa, dibulgatiboa, neutroa, dibertigarria, eskatzekoa, bihurria, bizarroa, zirikatzaila, eskusiboa, anbigua, modernoa...
- Zein hizkuntza barne hartuko ditu?
- Nolakoa izango da bere zabalkundea?
Osorik, zatika...
- Zenbat bertsio izango ditu?
Digitala, inprimatua...

DEFINITU

Produktuan txertatu beharreko mezuak lantzerakoan, interesgarria da alde aurretik glosario bat lantzea, transferentziaren funtsa jasoko duena eta hartzaileri zuzenean hitz egingo diena. Galdera hauei erantzutea lagungarria izan daiteke:

- Transferentziaren fokutik abiatuta, zein dira gehien erabiltzen diren hitzak haren edukia kontatzen denean? Ze hitz erabiltzen dira gutxi, baina gehiago erabil litezke?
 - Identifikatutako terminoen artean, zeintzuk ulertzen dira ondo, zeintzuk erdizka bakarrik eta zeintzuk nekez?
 - Horietatik, zeintzuk dira ezinbestekoak? Eta ulertzeko zailak badira, ordezka daitezke/azal daitezke? Nola?
- Zer termino dira egokienak transferentziaren bidez sortu nahi den pertzepzioa edota sentimendua deskribatzeko?
- Identifika daitezke zein hitz diren transferentziaren hartzaileriak berezki sentiarazten dituenak?
- Badago hitz egiteko modu espezifikorik erabili beharreko transferentzia-kanaletan?
- Ba al dago saihestu beharreko adierazlerik?

DISEINATU

Produktuaren azken forma, funtsean, aurreko urratsetan zehaztutakoak baldintzatuko badu ere, fase honetan beste erabaki batzuk har daitezke:

- Baliagarria litzateke analogia baten bidez transferitzea? Eduki bat beste ikuspegi batetik kontatzea lagungarria izan daiteke ulermena errazteko.
- Zer baliabide ditugu produktua optimizatzeko? Transferentzia, zati batean edo osorik, ikusizko edo ikus-entzunezko klabean planteatzea baliagarria izan daiteke transferentzia eraginkorragoa lortzeko. Era berean, beste formatu batzuetan ere eduki zentrala osatzen duten materialak edukitzeak emaitza positiboak emango dizkio prozesuari.
- Estilo edo jardunbide espezifikoren bat jarraitu behar da? Administrazio publikoen eta erakunde jakin batzuen kasuan, kontuan hartu beharreko aurretiko baldintzatzaileak egon daitezke.

Eta puntu honetan... askatasun osoz sortzea da erabakirik onena!




3. Nola?

3.4. - Hedapena

Hedapenarena da transferentzia-prozesuaren mugari zirrargarrietako bat; orain arte landutako guztia gizarteratzeko eta zer emaitza sortzen dituen egiaztatzeko unea da. Orain arte hartutako erabakiek (**zertarako, nori, zer eta nola**) ezarri dituzte azken urrats honi aurre egiteko ezinbesteko jarraibideak. Hala ere, ez ditugu ahaztu behar funtsezko kontu batzuk, modu jasangarrian eta eraginkorrean egingo dela ziurtatzeko:

- Aldez aurretik kronograma bat ezartzea hedapen-ekintzetarako, eta horien arduradunak esleitzea.
- Gauzatutakoaren jarraipena egitea eta, behar izanez gero, egokitzapenak egitea.





4. Kasuak

Jarraian, OGP Euskadi strategiaren 3. konpromisoaren esparruan garatutako 4 pilotuek eta Elkarlan 2019 Sariak gauzatuak transferentzia-prozesuen laburpena aurkezten da.

4.1.

1. KASUA

Zer? Errekalden pertsona migratuen partaidetza areagotzeko parte-hartze prozesua.

Nori?

- Toki-erakundeak, Udalak, Bilboko Barrutiak edo antzeko egiturak.
- Interesa duen edozein kolektibo.

Nola? [Ikusi transferentzia produktua]

2. KASUA

Zer? Partaidetzako aurrekontuen prozesu baten konfigurazioa.

Nori?

- Aurrekontu parte-hartzaileen eredu ezberdinek izan ditzaketen inpaktuak ezagutzeko interesa duten erakundeak.

Nola? [Ikusi transferentzia produktua]

3. KASUA

Zer? Herritarren partaidetzak Administrazio Publikoaren barne-egituran duen eragina.

Nori?

- Teknikariak.
- Politikariak.
- Herritarren partaidetza errazten duten erakundeak.

Nola? [Ikusi transferentzia produktua]

4. KASUA

Zer? Herritarren parte-hartzea ongizatea eta osasuna sortzeko.

Nori?

- Parte-hartze prozesu bat aktibatu nahi duten pertsona, erakunde komunitario eta administrazioak. Prozesuak edozein izaera eta helburu izanda ere, parte hartzen duten pertsonen eta haien ingurunearen osasunean eta ongizatean ekarpenak egin dezaketenak.

Nola? [Ikusi transferentzia produktua]

5. KASUA

Zer? EHKOLEktiboko bazkideek beren Berme Sistema Parte-hartzailean parte har dezaten sustatzea.

Nori?

- Bazkideak.

Nola? [Ikusi transferentzia produktua]

6. KASUA

Zer? GOIAN proiektu integral gisa balioestea.

Nori?

- Erabiltzaileak eta eragile laguntzaileak.

Nola? [Ikusi transferentzia produktua]



4. Kasuak

Ikaskuntza komunak

▪ Akordioa sustatzea.

Kolektibitatean transferentzia prozesu bat eraikitzea da, ziurrenik, arrakastaz egiten zailenetakoa den erronketako bat. Pertsona eta kolektibo bakoitzak errealitatea eta, beraz, proiektuak ulertzeko modu desberdin bat du, eta adierazteko modu ezberdin bat ere bai. Horregatik, funtsezkoa da bidean akordioetara iristeko malgutasuna eta jarrera izatea.

▪ Erraza eta hutsala dena ez nahastea.

Honelako prozesuetan, diskurtsoa zailtzeko eta transferentzia-edukiak ulertzea errazten duten alternatibak baztertzeko tentazioa etengabea da. Proiektu konplexuak izanik, beldurra dago honi balioa kentzeko, ideia konplexuak termino ez-espezializatuen bidez adierazterako orduan. Xumea eta hutsala, ordea, ez dira sinonimoak.

▪ Profesionalengan konfiantza izatea.

Horrelako transferentzia-prozesu batek espezializazio-eremu desberdinei dagozkien gaiei buruzko erabaki asko hartzea eskatzen du. Berrikuntzan eta herritarren parte-hartzean diharduten profesionaletatik hasi eta kontakizunak sortzen, komunikatzen edo diseinatzen diharduten profiletararte, espezialistak izatea, ahal den guztietan, eta haien irizpidean konfiantza izateak arrakasta izateko bermeak areagotzen ditu.

